

Azpeitiko Udal Liburutegiak bihar abiatuko ditu ipuin kontaketa saio berriak

Azpeitia. Azpeitiko Udal Liburutegiak 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako bederatzi ipuin kontaketa saio antolatu ditu udazken honetarako Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, beti ere, 'haur eta gaztetxoek artean liburuak irakurtzeko zaletasuna suspertzeko helburuarekin'. Emanaldi guztiak astelehenetan egingo dira, Udal liburutegian eta 18.00etan hasita.

Aurtengo egitasmoari hasiera emateko Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa izango da bihar, HH4ko umeentzat.

Hilaren 22an, berriz, HH5-eko haurrentzako saioa izango da, Bikelmiren eskutik.

Hirugarren ipuin kontaketa hilaren 29an izango da. Egun horretan Pello Añorga gerturatuko da Azpeitira, LH1-4 mailetako umeentzako emanaldia eskaintzeko.

Azaroaren 5ean, berriz, HH4ko ikasleentzako saioa egongo da, Maite Franko ipuin kontalariarekin.